

Errepublikako olerkariak

REVISTA ANUAL



Poetas de la República

14 de abril de 2013



Errepublika indarrean egon den urte urri eta bizietan lan harremanak hobetzea lortu zen, langileen soldatak %7an gehituz lehenengo bi urteetan eta beren lan-baldintzak hobetuz. Estatua eta eliza berezitu ziren eta estatu laikoa aitortu zen; emakumeak botoa emateko eskubidea ezarri zen eta, batez ere, ahalegin osoa egin zen irakaskuntza publikoa, laikoa eta denon eskura egotea lortzeko; heziketa plana dela-eta milaka ikastetxe eraiki ziren estatu osoan, prestakuntza eraginkorra eman zitzaizen maisu-maistrei eta gaur egun aurreratutzat hartzen diren hezkuntza- zein pedagogia-tekника berriak aplikatu ziren. Goiburu hau zuen: jakiteak libre egingo zaituzte. Estatu espainiarra herritar libreez eta beren patua erabakitzeko berezko gaitasuna duten herritarrez osatutako errepublika bilakatzeko borondatearen adierazgarria izanik.

Garai hartan, poesiaren belaunaldi distiratsuenetako bat sortu zen gure poesiaren historia osoan.

Erakusketa honetan, eta dagokion aldizkarian, 27ko Belaunaldiko olerkari adierazgarrienak sartzeko jarraitu den irizpidea literatur eta poetika mailako kalitatea izan da soil-soilik, alde batera utzita poeta horietako bakoitzak izan zezakeen filiazio politikoa.

Horregatik, Errepublikaren alde etsi gabe borrokan jardun zuten hainbaten ondoan -horixe da hain zuzen Miguel Hernandezen edo Rafael Albertiren kasua, beste askoren artean- poeta handiak aurki ditzakegu, adibidez Gerardo Diego, segituan errerepublikaren traidoreen ondoan jarri zena. Ez da ahaztu behar 27ko Belaunaldia belaunaldi errepublikanoa eta liberala zela, eta gaitu harritu behar, 1936ko altxamendu militarra hasi zenean, ia bere kide guztiak Errepublikaren alde jarri zirela jakiteak. Gerra garaian talde intelektual hark ez zuen bere ideala alde batera utzi eta, arte sorkuntzatik nahiz lubakitik bertatik, borrokara jo zuen.

Errepublikaren porrotarekin, gerra zibilaren amaieraren ondorioak aski ezagunak dira olerkari gehienentzat eta 27ko Belaunaldiko poetentzat: erbestealdia, herrimina, galdutako aberriaren samina. Amerikako lurretan, emakume eta gizon poeta haiek, aurrerantzean, gerraren zauriak, Espainiarenganako nostalgiak joa zuen lanarekin jarraitu zuten.

Guztiek dute sobera, literatura eta poetikari dagokionez, salbuespenik gabe, 27ko Belaunaldiko sortzaile handien berrikusketa antzeko bat izan nahi duen erakusketa eta aldizkari honetan sartzeko adinako kalitatea.

Pedro Salinas (1892-1951)



27ko Belaunaldiko maitasunaren poeta gisa kalifikatua izan da. Madrilen jaio zen eta Filosofia eta Letrak ikas izuen, baita Zuzenbidea ere. Gazte zela Sevillako eta Murtziako unibertsitateetan katedraduna izan zen eta espainierako irakurlea La Sorbonan eta Cambridgen. Errepublikan zehar Santanderreko La Magdalena Udako Nazioarteko Unibertsitateko idazkaria izan zen. Gerra Zibila zela eta atzerriratu zen eta irakasle zereginekin jarraitu zuen Estatu Batuetan eta Puerto Ricon. Olerkari gisa ez ezik, literatura kritikari eta aztertzaile gisa nabarmendu da, Jorge Manriquei eta Rubén Daríori buruzko saiakera garrantzitsuekin, baita *Literatura española. Siglo XX*


(1949) eta *Ensayos de literatura hispánica* (1958) obretan biltzen diren lanak eginez ere.

Bere poesiaren zatirik handienak maitasuna du gai nagusia. Salinasen poesian sentzibilitate berezia antzematen da, baita egiazaletasun egiazkoa eta ez itxurazkoa. Bere poemak motzak izaten dira eta askotan ez dute errimarik izaten. Hitzen edo egitura sintaktikoen errepikapenaren bidez lortzen du erritmoa.

LA MEMORIA EN LAS MANOS

Hoy son las manos la memoria.
El alma no se acuerda, está dolida
de tanto recordar. Pero en las manos
queda el recuerdo de lo que han tenido.

José Bergamín (1897 – 1983)



Zuzenbidea ikasi zuen Unibertsitate Zentralean. Bere lehenengo artikuluak Juan Ramon Jimenezek zuzentzen zuen *Índice* aldizkarian agertu ziren, 1921. eta 1922. urteetan. Poeta handiarekin adiskidetasun oso bizia eta iraunkorra izan zuen, Miguel de Unamunorekin izan zuena bezalakoa, zeina bere obraren iturri intelektual nagusietako bat izan zen. *Índice* aldizkarian sortu zen, bere iritziz, 27ko Belaunaldiko idazleen nomina osoa; gorroto zion etiketa horri, nahiago baitzuen "Errepublikako Belaunaldia" esatea. Kritika ofizialak beti ukatu dio talde horretakoa izatea, eta 1914ko Belaunaldiko edo Novecentismoko kideen artean sailkatu izan du, baina egia esateko 1914aren

hasieran parte hartu zuen, haren argitalpen guztietan kolaboratu zuen eta haren lehenengo liburuen argitaratzailea izan zen; beraz, esan liteke bertako ordezkari benetakoenetako bat izan zela. Gerra Zibilean, Intelektual Antifaxisten Aliantzako presidente izan zen, eta Pariseko Espainiako Enbaxadako agregatu kulturala izendatu zuten. Bertan, babes moralak eta finantzarioak bilatzen lan egin zuen, Errepublika eroriaren alde. Haren izena gerrako ia kultur ekimen guztiekin lotuta dago. *El mono azul*, *Hora de España* eta *Cuadernos de Madrid* aldizkarietan idatzi zuen. 1937an, Kulturaren Defentsarako Idazleen Nazioarteko II. Kongresuko buru izan zen Valentzian; bertan, munduko ia alde guztietatik etorritako ehun bat intelektual bildu ziren.

Esperando la mano de nieve

No escuches el ruido mentiroso
De un mundo estrepitoso y palabrero.
Escucha en el silencio de tu alma
Tu corazón, que también es silencio.
Vienes de un mundo de mortal memoria
Y vas a otro de inmortal olvido.
Entre los dos no sabes en cuál vives
Ni quién eres tú mismo.

Dámaso Alonso (1898-1990)



Madridarra, Zuzenbidea ikas izuen, baina ikasketak horiek utzi eta filologiari ekin zion. Valentziako eta Madrilgo unibertsitateetako katedraduna izan zen, baita Espainiako Errege Akademiako presidentea ere (1968-1982).

Poemas puros. Poemillas de la ciudad (1921) obrarekin hasi zen bere karrera literarioa, Erromantizismoak eta Modernismoak eraginda. *El viento y el verso* (1925) da bere bigarren liburua eta mota berekoa da. Isilatasun aldi luze baten ondoren, bere obra nagusia argitaratu zuen. *Hijos de la ira* (1944) zen obra hori eta gerraondoko lan garrantzitsuenetako bat izan zen

Egilea kexatzen da bidegabekeriagatik eta pobreziagatik eta bizitzaren zentzuaren gaineko galderak planteatu ditu poema ikaragarri batzuetan ("*Insomnio*"). Obra hori osatzen duten poesiak sentimenduz josita daude, erabat gizatiartuak daude eta gerraondoko poesia existentzialaren adibide egokia dira. *Oscura noticia* ere 1944an argitaratu zen, nahiz eta garai desberdinetako poemak biltzen dituen. *Hombre y Dios* (1955) liburuak -*Hijos de la ira* obrak bezala- gizakiaren existentziaz eta Espainiako egoera sozialaz hitz egiten du. Dámaso Alonsok literatur kritikari gisa egin duen zeregina ez da batere baztergarria. *La lengua poética de Góngora* (1935), *La poesía de San Juan de la Cruz* (1942), *Poetas españoles contemporáneos* (1952) bezalako entseguak argitaratu zituen.

CANCIONCILLA

Otros querrán mausoleos
donde cuelguen los trofeos,
donde nadie ha de llorar,

y yo no los quiero, no
(que lo digo en un cantar)
porque yo

morir quisiera en el viento,
como la gente de mar
en el mar.

Rafael Alberti (1902-1999)



27ko Belaunaldiko kideen artean, hil den azkena da. Cadizeko Puerto de Santa Marían jaio zen. Pinturari ekin zion, baina alde batera utzi eta poesiarekin jarraitu zuen. 1934an *Octubre* aldizkari iraultzailea fundatu zuen. Gerra zibila zela eta Argentinara atzerriratu zen, eta 1962an Erromara lekualdatu zen. Bere sorterian hil zen. Albertik oso ongi ezagutu zuen espainiar literatura eta hori islatzen da bere obran. Erromantzeen eta Kantuen eraginak, eta Garcilasoren, Góngoraren, Loperen, Bécquerren, Juan Ramón Jiménezen eta Antonio Machadoren ukituak nabarmenak dira. Askotako estiloak landu zituen: herrikoia, surrealismoa, poesia hutsa, poesia gizatiartua. Lorcarekin batera,

27ko poesia neopopularristaren adibiderik garbiena da.

Alderdi komunistako kide izanik Errepublikaren aldeko propaganda egiteko lan garrantzitsua egin zuen. Errepublikarekiko konpromisozko poemak dira, gizatiartuak eta, batzuetan, panfleto izaerakoak. Azterrian zegoela, obra kopuru handia argitaratu zuen Albertik. *A la pintura* (1948) bere grinetako bati egiten dion omenaldia da. *Retornos de lo vivo lejano* (1952) eta *Ora marítima* (1953) obretan Espainiari buruz idazten du urrutiko aberriari eskaintzen dizkion herriminez blaitutako poemetan. *Baladas y canciones del Paraná* (1954) obrarekin jarraitzen du erbestealdiak eragindako herriminarekin. Azkenik, *Roma, peligro para caminantes* (1968) obrarekin Albertik Erromari eskaintzen dio omenaldia, hiri horretan bizi izan baitzen atzerrialdiaren azken etapa.

MADRIGAL AL BILLETE DE TRANVÍA

Adonde el viento, impávido, subleva
torres de luz contra la sangre mía,
tú, billete, flor nueva,
cortada en los balcones del tranvía.

Huyes, directa, rectamente liso,
en tu pétalo un nombre y un encuentro
latentes, a ese centro
cerrado y por cortar del compromiso.

Gerardo Diego (1896-1987)



Santanderren jaio zen. Filosofia eta Letrak ikasi zituen Madrilen eta Literatura katedraduna izan zen. *Carmen* eta *Lola* aldizkariak sortu zituen. Kreazionismoa landu zuen Larrea eta Huidobrorekin batera, baina hori ez zen eragozpen izan bere lanean era askotako literatur estiloak garatzeko, poesia tradizionala, abangoardista, humanizatua edo tauromakiaren inguruko poemak, esate baterako. Gure literaturan eman ziren joerak jaso zituen Diegok, baina elementu komun batez nabarmendu zen guztietan: forma eta klasikoa eta berria lotzen jakitea.

Bertso librea erabiltzen du eta alde batera uzten du puntuazioa. Edertasuna hautemateko sentsibiltate handia duela erakusten du bere poesian, baina beharbada, hain poesia eder horrek ez du, esate baterako, Pedro Salinasek poema bakoitzean jartzen zuen emozio hori. Hala ere, azpimarratu behar da, Gerardo Diegok bere obran egin zuen lana abangoardistek eskainitako literatur joera berriak eta literatur tradizio espainiarra lotzeko.


Prosari dagokionean, gogora ekarri behar dugu, Gerardo Diegok bere *Dos antologías* (1932 eta 1934) obran egindako poema eta poeta biltze lan handia, Espainiako XX. mendearen lehen hereneko poesiaren panorama bikaina, hain zuzen ere. XX. mendeko soneto egile hoberenetakotzat hartua da Gerardo Diego, eta hori argi geratzen da *Alondra de verdad* bere lan handian.

SUCESIVA

Déjame acariciarte lentamente,
déjame lentamente comprobarte,
ver que eres de verdad, un continuarte
de ti misma a ti misma extensamente.

Así te quiero, fluida y sucesiva,
manantial tú de ti, agua furtiva,
música para el tacto perezosa.

Luis Cernuda (1902-1963)



Pedro Salinasen ikasle izan zen eta irakasle hainbat unibertsitate europar eta amerikarretan. *La realidad y el deseo* izenburu orokorraren pean bildu zuen bere poesia lan osoa, eta liburu bilduma horretakoak dira: *Perfil del aire*, *Égloga*, *elegía*, *oda*, *Los placeres prohibidos*, *Donde habite el olvido*, *Un río*, *un amor*, eta *Las nubes*, erbestean jada, *Desolación de la quimera*. Aipagarria da halaber literatur kritikari eta saiakeragile gisa egin zuen lana, bi Poesia eta literatur liburukiekin eta abarrekin.

Bere poesiak saihestu egiten du enfasi formala, eta zehatzezina, airekoa, bilatzen du. Horrexegatik nardatu egiten ditu estrofismoa eta errima, eta baten bat erabiltzen duenean asonantea izaten da, huraxe baita askatasun handiena eskaintzen duena. Giza esperientzian oinarritzen da, baina baztertu egiten ditu zehatzena eta propioena, irakurlea poetarekin identifika dadin. Nahiaren eta errealitatearen arteko talka kantatzen du, oroitzapenen pozbidetako goibela edo noiznahiko gozamen istant txiki batzuk, berak akordeak deituak, besterik uzten ez dizkiona poetari.

EL VIENTO Y EL ALMA

Con tal vehemencia el viento
viene del mar, que sus sonos
elementales contagian
el silencio de la noche.

Solo en tu cama le escuchas
insistente en los cristales
tocar, llorando y llamando
como perdido sin nadie.

Jorge Guillén (1893-1984)



Puru edo intelektual gisa defini daiteke Guilléne poesia, hartan desagertu egiten baitira Modernismoak ekarri zituen elementu apaingarriak, soilik emozio liriko huts gisa gelditzeko. Mamira doa, anekdotikoa den guztia baztertuta, baina ez sentimendua. Izatearekin lotzen du perfekzioa eta eguerdia bezalako eguneroko errealitate ukigarriak ditu gai bere poemetan. Deiarar pozgarri eta oso dira bere poemetako asko, izateari eta orainari, hemen eta oraini, eskainitako kantua. Hitz bakunak erabiltzen ditu, izenak eta egitura sintaktiko errazak nagusi betiere. Ikuspuntu metrikotik begiratuta, ahapaldi kultu eta tradizionalak erabiltzen ditu, sonetoa edo

hamarduna, esate baterako, eta baita herrikoiak ere, erromantzea, adibidez.


Munduari, izateari, eguneroko bizitza arruntari, naturari, eskainitako kantua da *Cantico*. Horixe da bere lan garrantzitsuena eta baita XX. mendeko poesia espainiarreko garrantzitsuenetako bat ere. *Clamor* da txanponaren beste aldea. Jarraitzen du edertasunari kantatzen, baina gauza guztien alderdi negatiboa sartzen du oraingoan, halako kontraste modukoan: gaizkia, gosea, gerra eta abar. Hala eta guztiz ere, positiboaren aldeko apustua egiten du Guillének. *Canticora* itzultzen da berriz ere *Homenaje* lanarekin, baina ikuspegi zabalagoarekin oraingoan: adiskidetasunari, arteari, kulturari... kantatzen die.

PERFECCIÓN

Queda curvo el firmamento,
Compacto azul, sobre el día.
Es el redondeamiento

Del esplendor: mediodía.
Todo es cúpula. Reposo,
Central sin querer, la rosa,
A un sol en cénit sujeta.
Y tanto se da el presente
Que al pie caminante siente
La integridad del planeta.

Federico García Lorca (1898 - 1936)




Bere Letra eta Zuzenbide ikasketek ez zuten musikak adinako interesa sortu harengan; Manuel de Fallaren lagun handia izan zen, baina gero urrundu egin zen harengandik. Ikasleen Egoitzan egokitu zen eta artista ugarirekin bizi izan zen han (Salvador Dalí eta Luis Buñuel bereziki). Denboraldi bat New Yorken bizi izan ondoren, Espainiara itzuli zen eta *La Barraca* sortu zuen 1932. urtean, eta gure lurraldea zeharkatu zuen antzerki talde harekin obra klasikoak antzeztuz. Ezker kutsuko hainbat jarduera publikotan hartu zuen parte eta nazionalistek erail egin zuten Viznarren (Granada). Haren erailketak zirrara handia sortu zuen mundu osoan.

Kultua eta herrikoa, tradizionala eta abangoardista, elkartzen dira Lorcaren obran. Herri andaluziarreko abesti zaharrak eta ahozko poesia ezagutzen zituen. Frustrazioa zen bere gaia, bi aldetatik begiratuta, alde ontologikoa eta soziala, hain zuzen ere. Poesia estilo aberatsarekin garatu zuen gai hori, espainiar literaturako sistema sinboliko konplexuenetako batekin, batik bat hiru iturritatik ateratako elementuek osatua: herri sineskeria, Shakespeare eta Biblia. Ezin zituen burutik kendu bakardadea edo patu tragikoa bezalako gaiak, eta ezta izaki baztertuek (homosexualak, emakumeak, haurrak, itxuragabeak, zahar inpotenteak, neskazaharrak, antzuak, ijitoak, beltzak...) konbentzionalismoetan oinarrituriko gizarte zapaltzailearen kontra eraman behar duten borroka ere.

EL SILENCIO

Oye, hijo mío, el silencio.
Es un silencio ondulado,
un silencio,
donde resbalan valles y ecos
y que inclina las frentes
hacia el suelo.

Vicente Aleixandre (1898 - 1984)



Sevillarra. Dámaso Alonsorekin zuen adiskidetasunak ernatu zuen haren poesiarekiko bokazioa. 1935. urtean, Literatur Sari Nazionala eskuratu zuen haren *La destrucción o el amor* liburuak. RAEko kide aukeratu zuten eta Nobel saria lortu zuen 1977. urtean.

Surrealismoaren urratsei jarraitu zien haren ekoizpenaren gehienak eta poeta handi bilakatu zen alor horretan; txatala eta ikuspen irudia erabili zituen *Espadas como labios* eta *La destrucción o el amor* liburuan. «Komunikazio poesiarantz» eboluzionatu zuen, 50. urteetako lirikan indarrean zegoen gizarte joerarekin bat eginez. *Sombra del paraíso* (1944) lanak eman zion hasiera, Dámaso

Alonsoren *Hijos de la ira* lanarekin batera, gerraondoko literatur joera deserrotuari. Elkartasun poesiari ekin zion *Historia del corazón* liburuarekin. Surrealismo berezi batera itzuli zen *Poemas de la consumación*, *Diálogos del conocimiento* eta *En gran noche* trilogiarekin, inplikazio filosofiko eta kutsu kontzeptista handiekin.

JUVENTUD

Estancia soleada:

¿Adónde vas, mirada?

A estas paredes blancas,
clausura de esperanza.

Paredes, techo, suelo:

gajo prieto de tiempo.

Cerrado en él, mi cuerpo.

Mi cuerpo, vida, esbelto.

Emilio Prados Such (1899 - 1962)



Egoitzako unibertsitate taldean sartu zen 1918. urtean, eta Europako ideia abangoardista eta intelektualen topagune hurbilkor bilakatu zen zentro hura, eta baita zientzien eta arteen inguruko elkarrizketarako foro iraunkor ere.

1921ean Suitzako Davosplatzeko erietxean sartu behar izan zuen haurtzarotik zuen biriketako gaixotasunak okerrera egin ziolako, eta hantxe igaro zuen urtearen gehiena. 1922. urtean berriro ekin zien ikasketei eta Filosofia klaseetara joan zen Friburgoko eta Berlingo unibertsitateetan; hiri alemaniar nagusietako museoak eta arte galeriak bisitatu zituen eta Picasso eta hainbat margolari espainiar ezagutu zituen Parisen.

Bere sortzaile jarduerekin batera, pixkanaka-pixkanaka gizarteko sektore txiro eta baztertuenezikiko interesa izatera eraman zuen bere gizartearekiko konpromisoak. Errepublikaren garai betean, 1934an, erakutsi zuen esplizituki ezkerraldearekiko zuen hurbiltasuna. Gerra hasi zenean Malagan nagusitu zen indarkeria giroak Madrilerara joatea behartu zuen eta Faxismoaren aurkako Intelektualen Aliantzara sartu zen han. Zeregin humanitarioetan lagundu zuen, Idazleen Nazioarteko II. Kongresua antolatzen lagundu zuen, eta baita hainbat liburu argitaratzen ere. Bere obretako asko argitaratu ziren orduan. Literatur Sari Nazionala jaso zuen *Destino fiel* bere gerra poesia bildumagatik 1938. urtean.

SUEÑO

Te llamé. Me llamaste.
Brotamos como ríos.
Alzáronse en el cielo
los nombres confundidos.

Te llamé. Me llamaste.
Brotamos como ríos.
Nuestros cuerpos quedaron
frente a frente, vacíos.

Miguel Hernández (1910 - 1942)



XX. mendeko espainiar literaturan garrantzi berezia izan zuen poeta eta antzerkigilea. Tradizioz 36ko belaunaldian sartu izan bada ere, Miguel Hernández hurbilago egon zen aurreko belaunalditik, «27ko belaunaldiko epigono bikaintzat» jo baitzuen Dámaso Alonsok.


1925. urtean ikasketak utzi zituen aitak aginduta, soil-soilik artzaintzan aritzeko, baina zuzenbide eta literatur ikasketak hasi zituen handik gutxira. Artaldea zaintzen zuen bitartean, gogo biziz irakurtzen zuen eta bere lehen poemak idatzi zituen. Gero eta sarriagotan joaten zen Liburutegi Publikora eta literatur talde bat osatzen hasi zen Orihuelako beste gazte batzuekin batera Carlos

Fenoll lagunaren ogi lantegiaren inguruan. Miguelez eta Carlos Fenoll beraz gainera, haren anaia Efrén Fenoll, Manuel Molina eta Jose Marín Gutiérrez, gero abokatu eta entsegugilea izango zena, «Ramón Sijé» ezizena hartu zuena eta Hernandezek bere *Elegia* ospetsua eskaini ziona, izaten ziren kide nagusiak bilera haietan. Une hartatik aurrera liburuak izango ziren Hernándezen hezkuntza iturri nagusia, eta guztiz autodidakta bilakatu zen. Haren maisu handi bilakatuko ziren Urrezko Mendeko egile handiak: Miguel de Cervantes, Lope de Vega, Pedro Calderón de la Barca, Garcilaso de la Vega eta, batik bat, Luis de Góngora.

GUERRA

El silencio. Y el laurel
en un rincón de osamentas.
Y un tambor enamorado,
como un vientre tenso, suena
detrás del innumerable
muerto que jamás se aleja.

León Felipe (1884 - 1968)



Familia burges dirudun batekoa zen. Farmazia ikasi zuen (botika bat ere izan zuen), baina laster uko egin zion bere iritziz monotonoa eta nolabait ere pribilegiatua zen bizimodu hari, eta lagun hurkoarengana hurbildu zuten abenturetan murgildu zen bere askatasunari bidea egiteko. Gaztaroan Espainiara bidaiatu zuen konpainia ibiltari bateko aktore gisa, gero espetxean eman zituen hiru urte funtsak desbideratu izana leporatu ziotelako. Bere lehen maitearekin, Irene Lambarri deituriko neska perutarra, Balmasedan (Bizkaia) ezagutu zuena, zentzatu zen pixka bat eta harekin bizitzen jarri zen Bartzelonan, baina handik gutxira bereizi egin ziren eta León Felipek

Espainiako hiriburura joatea erabaki zuen, seguru asko poesian jarduteko asmoz jada. Bizitza prostibulario eta miserablea izan zuen Madrilen, eta behartsuek banku batean eserita eta burua goizean goiz askatzen zuten soka baten kontra jarrita lo egiten zuten pentsio zaharretan ere eman behar izan zituen gau batzuk. Espainiako gerra zibila hasi zenean, 1936. urtean, bere herrialdera itzuli zen, orduan Franco jeneralaren altxamendu militarrek mehatxaturik zegoen gobernu errepublikano eta konstituzionalarekin guztiz identifikatua. Guztiz samina da haren esperientzia. Bando nazionaletik ihes egin zuen 1938. urtean eta Mexikon erbesteratu zen betiko.

Sentimendu espainiarraren interprete hoberenetakoa izan zen, gizatiarra, eta jakin zuen bere poesian biziki transmititzen. Hala ere, León Felipek ez zaio guztiz aintzat hartu bere lanaren balio ukalezina.

ROMERO SÓLO...

Que no hagan callo las cosas ni en el alma ni en el cuerpo.

Pasar por todo una vez, una vez sólo y ligero,
ligero, siempre ligero.

Sensibles a todo viento
y bajo todos los cielos,
poetas, nunca cantemos
la vida de un mismo pueblo
ni la flor de un solo huerto.
Que sean todos los pueblos
y todos los huertos nuestros.

Manuel Altolaguirre (1905 - 1959)



27ko Belaunaldiko poeta espiritual eta barrenkoiena izango da seguru asko. San Juan de la Cruz, Garcilaso de la Vega, Juan Ramón Jiménez eta Pedro Salinasen kutsua sumatzen da haren lanetan. Laburra eta desberdina bada ere haren ekoizpena, jakin zuen mundu barrenkoia, baina ñabarduraz betea sortzen. Beroa, maitekorra eta gardena da haren poesia.

Kantua maitasunari, bakardadeari, heriotzari, baina kutsu erromantikoekin betiere. Haren iritziz, Salinasen ahizpa txikia da bere poesia. Musikaltasuna da haren ekoizpenaren ezaugarri nabarmenenetakoa, eta bertso laburrak eta sustrai tradizionalako ahapaldiak dira nagusi.

Poesiaz gainera, memoria liburu bat idatzi zuen Altolaguirrek, *El caballo griego*, eta baita literatur kritika artikulua ugari, itzulpen batzuk eta antzerki lanak ere.

Argitaratzaile gisa egin zuen lana ere ez dugu ahantzi behar: 1929. urtean *Litoral* sortu zuen Malagan (Emilio Pradosekin batera), eta aldizkari hartan argitaratu zuten 27ko belaunaldiko gehienek. Kuban erbesteratua egon zen bitartean, *La Verónica* inprimategia sortu zuen, literatur testuak argitaratzeko hura ere.

POR DENTRO

El aire me está mirando
y llora en mi oscuro cuerpo;
su llanto se entierra en carne,
va por mi sangre y mis huesos,
se hace barro y raíces busca
con las que brotar del suelo.

Ernestina de Champourcín (1905 - 1999)



Emakumeen Lizeoa bezalako jarduerak partekatu zituen Errepublikaren garaiko intelektualekin. Lizeo horretako idazkaria izan zen eta hantxe ezagutu zuen 1930. urtean Juan Jose Domenchina, Manuel Azañaren idazkari pertsonala, eta harekin ezkondu zen 1936. urtean. Lizeoaren bidez ezagutuko zituen halaber Juan Ramón Jiménez eta Zenobia Camprubí emaztea, Concha Méndez, María de Maeztu, María Baeza, Pilar Zubiaurre, Manuel Altolaguirre, Emilio Prados, Juan de la Encina eta Rafael Alberti.

Gerra Zibilaren garaian, Juan Ramónek eta Zenobiak "Protección de Menores" izeneko komite antzekoa sortu zuten haur umezurtz edo abandonatuekiko kezka handia zutelako. Ernestina elkartu zitzairen erizain moduan, baina miliziano batzuekin izan zituen arazo batzuen ondorioz utzi egin behar izan zuen eta erizain laguntzaile gisa sartu zen Lola Azaña buru zuen ospitalean. Lan horretan izan zituen bizipenetan inspiratua da *Mientras allí se muere* nobela bukatu gabea.

Familia Madrileren joan zen bera oso gazte zela, eta hango Sagrado Corazón Ikastetxean ikasi zuen hamar urte zituenetik. Irakasle partikularrek prestatu ondoren, ikasle libre gisa egin zuen batxilergo azterketa Cardenal Cisneros Institutuan. Unibertsitatean ikasteko zuen nahia ezin izan zen bete aita aurka zegoelako, amaren laguntza izan zuen arren, klaseetara laguntzeko prest baitzegoen hura.

Izaera ameslari eta sortzailea izaki, oso gaztetandik poesia idatzi zuen frantsesez (neskato koskorra zenetik guztiz ondo hitz egin eta idazten zuen frantsesez eta ingelesez), baina berak suntsitu zuen literatur bokazioa seriooki planteatzean.

Si Derribas El Muro

¡Si derribas el muro
qué gozo en todas partes!
¡Qué lazo de palabras
se sentirá en la tierra!
Y todo será nuevo,
como recién nacido...

Si derribas el muro
de todas las mentiras
¡Qué júbilo de amor
abierto sobre el mundo!
¡Qué horizonte sin nubes
en la curva del cielo!

Concha Mendez (1898 - 1986)



Ikastetxe frantses batean hezi zen eta horren eragina nabari da bere lehen bertsoetan. Igeriketan txapelduna eta gimnasta izan zen Concha, Luis Buñuel bere lehen senargaia bezala, Donostian uda ematen ezagutu zuen hura 19 urterekin. Izaera liberalekoa, abenturen bila atera zen etxetik: 1919an Londresera eta Buenos Airesera joan zen, eta 1929an, berriz, Montevideora.

Ezkongai-harreman horrek, eta Rafael Alberti, Federico García Lorca eta Luis Cernudarekin zuen adiskidetasunak, 27ko Belaunaldia deitutako taldearekin elkartu zuten. 1926. urtean argitaratu zuen bere lehen liburua, *Inquietudes*, eta handik bi urtera, *Surtidor y Canciones de mar y tierra* 1930. urtean. 1931n, Federico García Lorcak Manuel Altolaguirre poeta eta inprimatzaile malagarra aurkeztu zion El Henar Granjan eta hurrengo urtean ezkondu egin ziren. Aragón hoteleko "La Verónica" inprimategia sortu zuten, Juan Ramón Jiménez, Unamuno, Pedro Salinas eta Jorge Guilléne laguntzarekin.

Gerra Zibilaren garaian hainbat poemarekin kolaboratu zuen *Hora de España* delakoan eta Ingalaterran, Frantzia eta Belgikan bizi izan zen. Parisera erbesteratu ziren Gerra Zibilaren ondoren. *Hora de España*n argitaratu zuen *El Solitario* bere lanaren aitzinsolasa, hiru ekitaldiko drama poetikoa hura. 1939. urtean Paris utzi eta Ameriketarako bidea hartu zuen, eta Habanara (Kuba) joan zen senarrarekin. "La Verónica" deitutako beste inprimategi bat sortu zuten han eta baita "El ciervo herido" deitu zioten poema bilduma ere 1939 eta 1943 artean. 1944an Mexikora pasa ziren biak, *Villancicos de Navidad y Sombras y sueños* argitaratu zuen eta Altolaguirrerengandik bereizi egin zen. 1966. urtean Madrilera bidaia bat egin bazuen ere, Mexikon jarraitu zuen 1986an hil zen arte.

Me Gusta Andar De Noche

Me gusta andar de noche las ciudades desiertas,
cuando los propios pasos se oyen en el silencio.
Sentirse andar, a solas, por entre lo dormido,
es sentir que se pasa por entre un mundo inmenso.

Todo cobra relieve: una ventana abierta,
una luz, una pausa, un suspiro, una sombra...
Las calles son más largas, el tiempo también crece.

¡Yo alcancé a vivir siglos andando algunas horas!



Asociación Republicana Irunesa
"Nicolás Guerendiain"
Irungo Errepublikarrak

www.asociacionrepublicanairunesa.org

Arbelaitz 3 - Irun - Código postal:10008

Tel: 669 075 423